

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Idatzizkotik ahozkoa: XVIII. mendeko zenbait lapurtar gutunen azterketa

Gradu Amaierako Lana

Amaia Bilbao Cortina

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Saila

2019-2020

Tutorea: Oroitz Jauregi Nazabal

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Saila

LABURPENA

Lan honetan, idatzizko ekoizpenetik ahozkoa egin nahi da jauzi. Helburua, beraz, testu batetik abiatuz, egilearen fonologiaren inguruko informazioa lortzea litzateke, hurbilketa lauso bat bederen. Horretarako, gutun bilduma bat aukeratu da, hauetan baliatutako estilo informala dela eta, idazleen ahozkotik hurbilago dagoelakoan, estilo formalaz edo helburu literario batez idatzitakoak baino. Horretaz gain, hainbat eskuk idatzitako testuak izanik, azterketa zabalagoa egitea ahalbidetzen dute, nahiz eta lan honetan ez den gutuneria osoa aztertuko espazio eta lanaren mailaren mugak direla eta; beraz, lehenengo hamar eskutitzak baino ez dira landuko. Aukeratutako *corpusa*, Xabier Lamikiz historialariak 2003an aurkitutako lapurtar gutuneria da, *Le Dauphin* itsasontzian Louisbourg kolonia frantsesera bidalitakoa. Gutun hauek 2013an argitaratu ziren lehenengoz, *Lapurdum* aldizkarian.

Egiturari dagokionez, lana hiru atal nagusitan banatzen da. Lehenik, gaiaren eta aztertuko diren testuen aurkezpena egingo da hiru azpiataletan banatuta. Hasteko, idatziaren eta ahozkoaren arteko lotura landuko da, zenbait hizkuntzalarik gaiaren inguruan esandakoak ekarriz. Jarraian, *corpusaren* analisiari ekingo zaio, gutunetako grafiaren analisiari, testuinguru anitzetan grafema bakoitzak zein fonema adieraz lezakeen azalduz; idatzien arteko alderaketa eta grafia sistemen deskribapena eginez. Ondoren, ingurunearen araberako aldagarritasuna azalduko da modu laburrean, hau da, bilakabide ingurunedunak. Honen bitartez, ahozko ekoizpenean gauzatuko liratekeen alofonoak azaleratzeko. Lanaren bigarren atal nagusian, aurreko bi azpiataletan egindako azterketan aurkitutako fonema eta alofenoen taula eskainiko da, beti ere *corpus* batekin lan egiteak dakartzan mugak kontuan izanik. Hau da, *corpusak* hiztunaren inbentario osoa ez islatzea posible dela jakinik. Amaitzeko, lanaren ondorioak azalduko dira. *Corpusari* dagokionez, eranskin modura eskainiko dira aztertutako gutunen transkripzioak, testu originalekin eta *Othoi çato etchera* (OÇE) lanaren egileek proposatutako grafia gaurkotua duen bertsioarekin batera.

Jarraian garatuko den lana sakonago egin beharreko azterketa baten hasiera baino ez litzateke. Lanaren maila mugak direla eta, ezin izan da azterketa zabalagorik egin, bai aztertu den laginaren azterketaren xehetasunagatik, bai aukeratutako *corpusari* ezarritako

⁰ Aipamen berezia zor zaio lan honen lehenengo zuzendariari, Miren Lourdes Oñederra Olaizolari. Haren gidaritzak ahalbidetu du lan honen ekoizpena.

maila mugengatik. Beraz, ondoren aurkeztuko dena azterbide baten proposamena izango litzateke.

AURKIBIDEA

LABURPENA.....	i
AURKIBIDEA	iii
1. Sarrera.....	1
2. Aztertutako corpusa	3
2.1. Testuaren kokapena.....	3
2.2. Grafien eta hotsen harremanaz	5
2.3. Azterketaren abiapuntua	7
2.3.1. Egungo euskal fonema inbentarioa	7
2.3.2. Ortografia	11
2.4. Corpusaren analisia	12
2.4.1. Transkripzioaren inguruko zenbait ohar	12
2.4.2. Testuen grafiaren analisia	13
2.4.3. Bilakabide ingurunedunak	26
2.5. Azterketaren emaitza: fonema taula	28
3. Ondorioak.....	31

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: egungo euskal kontsonanteak	10
2. taula: egungo euskal bokalak.....	10
3. taula: corpusaren egileen kontsonanteen hipotesia.....	30
4. taula: corpusaren egileen bokalen hipotesia	30

ERANSKINEN AURKIBIDEA

1. eranskina: corpusaren transkripzioa.....	35
2. eranskina: fonemen adierazpen grafikoaren laburpena.....	49

1. SARRERA

Hainbat izan dira gure arloan antzinako euskal fonologia aztertu dutenak, batez ere, berreraiketaren metodologia erabiliz. Euskararen inguruan metodologia honen bidez aurrerapen handienak egin dituztenak Koldo Mitxelena eta Joseba Lakarra ikerlariak izan dira, azkenaren kasuan ibilbide zabala osatu du aitzineuskara berreraikitzen, honen erakusgarri da, esaterako, 2011n *Fontes* aldizkarian argitaratutako artikulua. Lan honetan, XVIII. mendeko Lapurdiko hainbat idazki laburretako ustezko fonologiaren deskribapen xume bat egitea litzateke helburua, nahiz eta azaleko hurbilketa bat baino ez egin. Velosoren (2019, 2) esanetan, hizkuntzalaritza modernoak idatzizko ekoizpenak baztertu ditu hizkuntzalaritzaren interes zientifikoaren interes-guneetatik. Mujikak (1997, 13) ere hizkuntzalaritzak idatzia alde batera utzi izanaren ideia aipatzen du, honen hasikinak Aristotelesen aipu batean zedarriz, historian zehar izandako bilakaera deskribatuz Saussure beraren planteamenduetara heldu arte.

Hala ere, Velosoren (2019, 2) ustez, nahiz eta egia izan hizkuntzalaritzaren aztergaiaren funtsa ahozkoan gauzatzen dela modurik osoonean, idatziak ere hizkuntzaren ezaugarriak islatzen ditu; beraz, ez litzateke hizkuntzalaritzaren azterketatik baztertu beharko. Lan honetan ere, idatzizko ekoizpenetatik abiatuta egingo da azterketa fonologikoa. Delako analisia bi ataletan gauzatuko da jarraian azaltzen den moduan.

XVIII. mendeko euskaldun lapurtarren fonologiaren oinarritzko deskribapen hau osatzeko baliaitutako metodologia aipatuko da. Bi pausutan helduko zaio gaiari. Lehenik, gaur egungo euskararen fonema taulatik abiatuko naiz, gaur egungo euskarak dituen fonemak zehaztuta, hautatutako testuen azterketari ekinez. Testuen analisia gaur egungo fonema taulatik abiatzeko arrazoia analisi osoaren ziurtasuna da. Azterketari ekiteko abiapuntu fidagarria izateko, testuen garaian egon zitekeen fonema taula hipotetiko batetik abiatzea baino ziurragoa delakoan. Horrela, testuak aztertzerakoan gaur egungo fonema taularekin erkatuta zein fonema falta diren edo gaur egun dirautenez gain, zein gehiago egon zitekeen ondorioztatu nahian. Beraz, testuaren transkripzio fonemikoa / fonetikoa eginez, (1.4.1 atalean azaltzen denez) honetan zein fonema dauden bildu eta garaiko fonema taularen hipotesi bat osatzeko saiakera egingo da.

XVIII. mendeko idazkien azterketa gauzatzeko, testuan dakusagun ortografia aztertuko da, garaiko inguruko erromantzeen ortografia konbentzioak eta orduko

gainerako euskal testuen idazkera kontuan izanik, grafema bakoitzak zein fonema ordezkatu ahalko lukeen jakin nahian. Hala, ahoskera erreala zatekeenera ahalik eta gehien hurbilduz.

Lanean aztertuko den testuari dagokionez, XVIII. mendeko gutun bilduma bat izango da. Idazkietako fonologia hipotetikoaren analisisa, esan bezala, idazleek berek euren hizkerako fonemak ordezkatzeko baliatutako grafiaren azterketan oinarrituko da. Honekin lotuta, esan beharra dago testu hauek aukeratzeko kontuan hartu den arrazoi nagusia autoreen inolako helburu literario edo estetikorik eza izan dela, hain zuzen ere. Izan ere, idazketaren nolabaiteko kontzientzia literarioa edukitzekotan, idazterakoan baliatutako ortografia garaiko ahoskeraren islapenetik urrunduz moldatzeko aukera handiagoa egon zitekeelako garai hartan arrunta zenarekin konparatuz. Hala izanez gero, fonologiaren inguruko azterketa bera ilunagotu zitekeen. Beraz, garaiko konbentzioetara lerratuz idatzitako testuak izatea bermatze aldera, jende xumearen testuak aukeratu dira, idaztean euren ahoskeraren islarik ahalik eta zehatzena osatuko zutelakoan.

Hau guztia kontuan izanik, XVII. mendeko *Le Dauphin (LD)* itsasontziko marinelek zeramaten gutun sorta aukeratu dut lagintzat. Aurretiaz aipatutako arrazoiez gain, hainbat eskuk idatziak izanik, euren arteko erkaketa ere ahalbidetzen dutelako. Testu honen azterketarako baliatutako iturri nagusia Lamikiz, Padilla, Videgain (2015), *Lapurdum* aldizkariak 2015ean argitaratutako ale berezia da, lanean aztertutako *corpusa* bera ere argitalpen honetatik hartua izanik. Azkenik, aztertutako gutunak eta hauen transkripzioa eranskin modura eskaintzen dira ondoko moldeari jarraituz.

Testuen transkripzioa hiru zutabetan dago banatua, lehenengo biak *Lapurdumeko* argitalpenari dagozkie. Lehenak jatorrizko dokumentuetan irakur daitekeena islatzen du, hauen ortografia eta hitz banaketa originalari eutsiz, baita lerro eta paragrafoen arteko banaketa adieraziz. Bigarren zutabea, OÇE lanaren egileek gaur egungo ortografia eta hitz banaketara ekarriak aurkezten dira. Hirugarrenean, berriz, lehenengo zutabea oinarriturik (jatorrizko idazkera adierazten duenean, beraz) eta zalantza uneetan grafia gaurkotua duen zutabeari erreparatuz, transkripzio fonetiko ahalik eta estuena osatzeko saioa egin da.

Transkripzioaren oinarria idazkera originala izanik, esan beharra dago jatorrizko testuen hitz banaketari eutsiko zaiola testuaren azterketaren atalean azalduko diren arrazoiengatik. Hirugarren zutabea ere, lehenengo zutabea kortxete artean eta gurutze

batez markatuta daudenak modu berean adieraziko dira. Ondoren, gutunen autoreen sistema fonologikoa berreraikitzeke saiakera egingo da, beti ere hurbilketa xume bat bakarrik egiteko esperoan behintzat.

Amaitzeko, ez dira frantsesezko testu zatiak transkribatu, salbu eta hitz bakar bat, gutunaren mamiaren parte delako. Frantsesez idatzitako gainerako guztia eskutitzaren data, igorlea, hartzailea eta honen bizilekua litzateke, kasu guztietan gutunaren hasieran agertzen dena.

2. AZTERTUTAKO CORPUSA

2.1. Testuaren kokapena

Corpusaren analisi fonologiko eta filologikoari ekin baino lehen, gutunak zein testuingurutan sortuak izan ziren azaldu beharra legoke, beraz, honako atalean, *corpusaren* kokapen historikoa zehaztuko da.

Lanaren sarreran aipatu bezala, *Le Dauphin XVIII.* mendean, Lapurdiko zenbait herritan idatzitako gutun bilduma da, *Le Dauphin* itsasontziak Louisbourg-era zeramatzanak. Gutun haien gaineko lan zabal bat argitaratu zuten Lamikiz, Padilla eta Videgainek (2015). Lan honetan, aipatutako argitalpeneko gutun bildumaren edizioa izango da azterketaren oinarria. Era berean, gutunen inguruko gainerako informazioa ere lan horretatik ateratakoa da.

Le Dauphin itsasontzia merkataritza ontzia zen, Frantzia eta orduan zituen kolonien arteko bidea egiten zuena; hala ere, Zazpi Urteko gerra (1756-1763) hastean, kortsario ere bihurtu zen. XVIII. mendean Frantziaren eta Britainia Handiaren arteko gerrek iraun bitartean, ohikoa zen merkataritza edo arrantza ontziak kortsario bihurtzea, jarduera honek sor zitzakeen etekin handiek eraginda. *Le Dauphin*-ek 1757ko apirilean, zeramatzan salgaiekin batera, 170 gutun ere bazeramatzan. Horietako gehienak frantsesez bazeuden ere, 50 gutun euskaraz idatziak ziren. Louisbourg-era bidean zela harrapatu zuten hiru ontzi britainiarrek.

Eskutitzei dagokienez, eta gutunetan bertan ageri denez, Louisbourg-era joandako senideei zuzenduta zeuden. Louisbourg Kanada ekialdean kokatutako Île Royale frantziar kolonian zegoen. Antza, Ipar Euskal Herriko euskaldun asko joan ziren kolonia hartara merkataritzan eta arrantzan jardutera. *Le Dauphin* itsasontziko jabea ere Louisbourg-eko euskaldun komunitate haren parte zen, lapurtarra jatorriz. Aipatzekoa da, Lamikizen (2015, 28) esanetan, kolonia hartan euskara zela frantsesaz gain gehien erabiltzen zen hizkuntza, bertan ziren marinel, arrantzale, merkatarari eta artisau euskaldunen eraginagatik. *Le Dauphin* itsasontziko marinel gehienak ere euskaldunak ziren. Izan ere, bake garaian arrantzan edo merkataritzan zebilen jendeak kortsario ontzietara jotzen zuen gerra garaian.

Korsuaren gaia gutunetan bertan ere aipatzen da, baita koloniar joandako senideek jaioterrian utzitako familiari bidalitako dirua. Hala ere, gutunetan zehar gehien errepikatzen den gaia Lapurdiko familiek joandakoei itzultzeko eskaera da.

Britainiarrek itsasontzia atzeman eta kargamentua bereganatu zutenetik, Londresen egon dira gordeta zenbait biltegitan, gaur egun dauden lekura heldu arte, The National Archives delako egoitzan. Lamikizek (2015, 37) dioenez, *Le Dauphin* itsasontziak harrapatu zuten unean zeraman gutuneria lehenagotik ezaguna izan arren, frantsesez idatzitakoak baino ez dira aztertu, euskarazkoak alde batera utzita. Kanadan duela 30 urte ezagutzen zuten LD-eko gutuneria, baina esan bezala, albo batera utzi zituzten euskaraz idatzitakoak. Euskal Herrian, ordea, duela gutxi egin dira ezagunak, Lamikizek berak aurkitu eta lau urte igaro ondoren, 2007an IKER taldearekin izandako kontaktuen ondorioz, gutunen garrantziaz konturatu zenetik.

Aurkikuntza honek lapurtarrek familia eta lagunartean euskaraz idazteko zeukaten ohitura baieztatzen du. Baina ezin daiteke gauza bera esan Hegoaldeko euskaldunei buruz. Lamikiz Hegoaldeko eskutitzen baten bila hastean, esaldi labur batzuez aparte, aurkitu zituen gutun guztiak gaztelaniaz idatzita zeuden. Lortutako emaitza hauetatik ondorioztatu zuen, hegoaldeko euskaldunek ez zeukatela elkarri euskaraz idazteko ohiturarik.

Lan honen muga dela eta, *LD* itsasontziko gutuneriaren hamar gutun bakarrik aztertuko dira, OĈE lanean argitaratu ziren lehenengo hamarrak, ordena berean hartuak, hau da, kronologikoki, Padilla eta Videgainek (2015) *Edizioaren aurkezpena* atalean azaltzen dutenez. Beraz, lau jatorri desberdinetako egileen testuak aztertuko dira. Gutun

gehienak Hendaiatik bidaliak dira, hamarretatik lau: bigarrena, hirugarrena, laugarrena eta bederatzigarrena (2-3-4-9), hain zuzen. Ondorengo jatorri nagusia Sara litzateke, hiru gutunekin: bosgarrena, zazpigarrena eta hamargarrena (5-7-10). Azkaineko eta Urruñako gutun bana ere badaude: zortzigarrena (8) Azkainekoa eta lehenengoa (1) Urruñakoa. Azkenik, jatorri ezezaguneko beste eskutitz bat gehitu behar zaie hauei, seigarrena.

2.2. Grafien eta hotsen harremanaz

Ikus daitekeenez, lan honek testu baten grafiak, kasu honetan *Le Dauphin* itsasontziko gutunek, idazleen fonologiaz azalatu dezakeen informazioa bilatzen du; beraz, bertan aurki daitekeen ortografiak testuen autoreen ebakera isla dezakeelako hipotesia onartuta abiatuko da lana. Hala ere, pentsa liteke badela idazkeraren eta ahozko ekoizpenaren arteko aldea, edozein garai edo hizkuntzatan legokeena. Izan ere, ortografia-arauak konbentzionalak direnez, ez dute zertan ahoskera modu zuzenean irudikatu.

Idazkera eta ahoskera hasieratik daude lotuta, lehena bigarrenaren isla izateko sortua baita. Ideia hau adierazi zuen Edwards & Shriberg-ek 1983ko lanean, beste hizkuntzalari batek (Ferguson) berari esan bezala:

Phonology can be said to date back to the second millennium B.C. when the alphabetic principle (one symbol for every distinctive sound) was “discovered.” In order to come up with an alphabetic form of writing, in which only distinctive sound differences are represented, the ancient Akkadians, a Semitic people of central Mesopotamia (in southwestern Asia), must have been aware of the sound entities in order to classify them systematically (C. A. Ferguson, personal communication). (Edwards & Shriberg 1983, 43)

Beraz, hasiera batean, idazkera alfabetikoa hots bat ikur bat egokitasuna hein handi batean mantentzen duen sistema bezala sortzen da. Gerora, denboraren poderioz, idazkera ahoskeratik aldentzen da, abiadura desberdinetan hizkuntza bakoitzaren arabera, gaur egungo egoera aniztasunera heldu arte, hizkuntza bakoitzaren ortografiak izandako bilakabidearen ondorioz. Gure inguruko erromantzeen ortografiari erreparatuz gero, esan dezakegu gaztelaniaren ortografiak ahoskeraren isla fidel xamarra eskaintzen duela, frantsesarekin alderatuz gero. Izan ere, frantsesez oso goiz hasi ziren idazkera eta

ahoskera elkarrengandik aldentzen (Mujika 1997, 24-25). Azken honetan, askoz zeharkakoagoa da mintzairaren eta idazkeraren arteko lotura edo bigarrenak lehenengoaz egin dezakeen isla.

Bien arteko aldentzearen arrazoia, historian zehar tradizioari eusteko joera izan da. Hau da, nahiz eta ahoskera aldaketa gauzatu, egoera berriaren aurreko idazkera mantentzea. Hizkuntza ugaritan antzeman daiteke gertakari honen eragina; horietako bat frantsesa izanik. Frantsesak garai bateko ahoskeraren testigantza ematen du, ortografiak gerora gauzatutako ahoskerak jasandako aldaketak islatzeari uko eginez. Euskarak ordea, aipatutako hizkuntza guztietatik idazkera “fonologikoa” daukana litzateke, ahozko ekoizpenaren isla nahiko fidela eskaintzen duelako, nahiz eta badiren zenbait xehetasun erabat fonologikoa izatetik urruntzen dutenak. Gaztelania berriz, euskararen egoeratik gertuago legoke frantsesarenetik baino.

Euskal munduan ez da askorik idatzi grafiaren eta hotsen arteko erlazioaz. Larramendi izan daiteke gai honen inguruan idatzi zuen gutxietakoa, 1729ko lanaren hirugarren atalean aurki daitekeen lehenengo kapitulua kontuan izanik, *Pronunciacion y ortografia del bascuence*, hain zuzen. Esaterako, honako hitzak erabili zituen bustidura azaldu nahian:

[...] la t, además de la regular pronunciación, tiene otra diversa; siguiéndosele u: y es media entre la que tiene la t, y la j consonante, no tan fuerte como la primera, ni tan suave como la segunda. Tiene casi el sonido de tiu monosílabo, ditut, badituzte, ditiut, baditiuzte. Y para significar esta pronunciación duplican en algunas partes la t. (Larramendi 1853, 176)

Inguruko beste hizkuntzetan ordea, gai hau jorratzen duten zenbait testu aurki ditzakegu. Honen adibide dira gugandik bata bestea baino hurbilago dauden bi erromantzetan aurki ditzakegunak. Esaterako, portugesari dagokionez, Ponce de Leónnek (2009, 171) ortografia eta ahoskera portugesaren inguruko hiru lan aipatzen ditu. Lehenengo biak XVI. mendekoak dira, hirugarrena, berriz, XVIII. mendekoa. Azken honetan, izenburuan bertan antzeman daiteke grafiaren eta ebakeraren arteko harremanaz diharduela: *Ortografia, ou Arte de escrever e pronunciar com acerto a Língua Portuguesa*.

2.3. Azterketaren abiapuntua

Lanaren sarreran aurreratu bezala, aztergai den testuaren analisiari ekin aurretik, abiapuntuzat hartuko den informazioa azalduko da. Horren barruan leudeke bai euskal fonologiaren inguruko zenbait kontu, baita euskararen grafiaren eta hotsen arteko harremanaren historiaren azalpen labur bat ere. Beraz, ondoko azpiataletan euskararen egungo fonema taula aurkeztuko da lehenik, XVIII. mendeko Lapurdi aldean hotsei zegokienean zitekeenaren hainbat hipotesi azalduz.

2.3.1. Egungo euskal fonema inbentarioa

LD testuaren garaiko euskal fonologiari dagokionez, zaila gertatzen da informazioa lortzea, orduko autoreek ez baitzuten fonologia gaur egun ezagutzen dugun moduan aintzat hartzen. Garai haietan fonologiak, gaur ulertzen dugun moduan, ez zeukan presentziarik hizkuntzalaritzan zebiltzanentzat, ortografiaren eta ebakera zuzenaz aritzeko ez bazen, ez baitzegoen haren kontzientziarik. Ondorioz, aztertzen zituzten gainontzeko arloetan (morfologia, ortografia, eta abar) zeharka aipatutako datuak baino ezin dira lortu (Oñederra 1992, 51).

Gure helbururako gehiegizkoa litzateke XVIII. mendea baino lehen euskara aztertu edo gure hizkuntzaz idatzi zuten autore guztien idazkietan fonologiaz aurkitu ahalko genukeen guztia bilatzen hastea; beraz, bestelako abiapuntu batetik ekingo zaio azterketari. Metodoa honakoa litzateke: gaur egungo fonema taula abiapuntu izanda, zuzenean testuen gainean lan egin, bertan aurkitu daitezkeen fonemak gaurkoekin alderatuz, "behar izatekotan", zein fonema ezabatu eta zein gehitu ondorioztatuz, autoreen euskararen fonema taula osatu nahian.

Esan bezala, gaur egungo euskararen fonema taula erabiliko da, baina gaztelaniatik eta frantsesetik hartutako zenbait kontsonantek eztabaida sortzen dute, euskal fonema inbentarioaren parte diren edo ez erabakitzerako orduan. Ondorioz, lan honetan, fonema hauek barne hartzen dituen taula bat osatu da, aukera posible guztiak kontuan hartu nahirik.

Ondoko taulan, euskararen gaur egungo hotsen sailkapena aurkezten da. Alde batetik, alofonoak gorritz agertzen dira, fonemekiko bereizketa nabarmentzeko. Bestetik, kontuan hartu da zenbait hotsen hizkeraren batekiko eskusibotasuna. Honen harira, Iparraldeko hizkeretako hots eskusiboak berdez markatu dira. Hegoaldeko hizkerari dagokienez, bertan bada hots bat argiro eskusiboki Hegoaldekoa dena, /θ/ fonema berria, urdinez ageri dena. Hots hauen berritasunagatik, egun gaztelaniatikako /θ/ bezala frantsesetik sartzen ari diren /v/ eta abar ez dira lan honetan kontuan hartuko, ez baita posible aztergai diren testuetan agertzea, ez baitzeuden garaiko euskararen. Hala ere, taulan adierazi ditut, egungo egoera islatzen duelako.

Hala ere, jakina da eztabaida dagoela /θ/ fonemaren inguruan, batzuek euskararen inbentarioaren barruan sartzen duten bitartean, beste batzuek ez dutelako /θ/ fonema euskararen inbentarioan dagoenik uste, baizik eta erabiltzen den bakoitzean gaztelaniaren inbentariotik ekarria dela. Jarraian aurkeztuko den fonema taulan euskal fonologian barneratua dagoelako ustearen aldeko hautua egin da. Hala ere, lanean aztertzen den *corpus*aren garaian ez zen aipatutako fonema gauzatzen euskarazko ekoizpenetan, ondorioz ez da azterketan kontuan hartuko.

Aztergai diren testuetan aurkituko den fonema taularen hipotesiei dagokienez, bi aurreikuspen egin litezke. Batetik, idatziek ez dute gaur egun Iparraldeko hizkeretan baino ez dauden eta frantsesetik hartuak diren /R/ eta /v/ fonemak egileen ahozkoan txertatuta zeudela pentsatzeko zantzurik erakusten, euskarazko jatorrizko /r/ eta /b/ baizik. Bestetik, berdez adierazitako fonemen agerpena espero liteke, *corpus*ak islatzen duen hizkera zein den kontuan izanik. Azkenik, transkripzioan fonemaren bat ez agertzea posible litzateke, edozein ekoizpen mugatutan fonema taula osoa agertzeko aukera urriengatik.

Honekin jarraituz, bokal sudurkariak ere erabiltzen direlako zantzuak daude, Epeldek eta Jauregik (2011) hiztun lapurtarren ekoizpenetan frogatu zuten bezala. Hala ere, lan honetan ez dira kontuan hartuko, ikerketa luze eta sakonagoa beharko lukeen gaia delako.

Era berean, txistukari ahostunak ere ez dira kontuan hartuko. Idatzietan bederen ez zaie behin ere erreferentziarik egin. Padillak (2019, 459) txistukari ahostunen erabilera eremua Zuberoa eta Behenafarroako zati batera mugatzen du. Lapurdi, beraz, eremu horretatik kanpo legoke. Hala ere, gaur egungo euskararen txistukari ahostunak alofonikoki

sortzen dira zenbait hizkeratan eta beste zenbaitetan fonema dira, beraz, ondoko taulan ageri dira nahiz eta lanean kontuan hartuko ez diren.

Hau esanda, jarraian gaur egungo fonema taula dakusagu aurretiaz aipatutako berezitasunekin, hau izango delarik *LD* testuen fonologia aztertzeko ezarriko den abiapuntua.

Kontsonanteak	Ezpainkariak		Ezpain-horzkariak		Horzkariak		Hobikariak		Sabaiurreko		Sabaikariak		Belarrak		Glotalak	
	-A	+A	-A	+A	-A	+A	-A	+A	-A	+A	-A	+A	-A	+A	-A	+A
Herskariak	P	b			t	d					c	ʝ	k	g		
Igurzkariak		β	f	v	θ	ð	ɬ	ʂ	ʒ	ʝ	ʒ	j	x	ɣ	h	
Afrikatuak							tʂ	tʃ	dz	tʃ	dʒ					
Sudurkariak		m		ɱ				n				ɲ		ŋ		
Albokariak								l				ʎ				
Darkarkariak								r						R		
Ttak-a								ɾ								
Irristariak												j		w		
Herskari hasperendunak	p ^h				t ^h									k ^h		

1. taula: egungo euskal kontsonanteak

<u>Bokalak</u>	Aitzineko	Erdiko	Atzeko
Goiko	i, y		u
Arteko	e		o
Beheko		a	

2. taula: egungo euskal bokalak

2.3.2. Ortografia

Euskal grafia sistema hiru garaitan banatzen du Urgellek (1987) *Esku-liburuaren grafi aldaketak (1802-1821)* lanean, “tradiziozkoa” deritzona, “kritikoa” eta “finkatzea”. XIX. mendearen amaiera aldera ezartzen du lehenengoaren muga, beraz, lan honetan aztergai ditugun testuak XVIII. mendekoak izanik, lehenengo garaian kokatu beharrekoak lirateke.

Hasierako garai hartan, euskararentzako ortografia arautua sortu baino lehen, inguruko hizkuntza erdaren ortografia baliatzen zuten euskarazko testuak idazterakoan (Urgell 1987, 1). Mujikaren (1997, 23) lanean azaltzen denez, Iparraldeko idazleek inguruko hizkuntza guztien artean frantsesaren idazkera hartu zuten eredu nagusitzat. Egile handien kasuan hala izanik, lan honen *corpus*aren egile herritarrengan ere hala izango da, ondoko azterketan ikusiko den bezala. Hala ere, hurrengo mendeetan, eredutik abiatuta idazmolde berezia garatzen joan ziren, hasierako ereduaren jarraipen zehatzetik aldenduz.

Frantses ortografiari dagokionez, zaila izan da garai hartako egoeraren berri izatea, informazioa lausoa eta lan honen egilearen hizkuntza ezagupena mugatua izateagatik, baina Mujikak (1997) berak eskaintzen digu frantses idazkeraren bilakaeraren laburpen bat. Bertan azaltzen da, gorago aipatutako fonetikaren eta idazkeraren arteko banaketa, hizkuntza idazten hasi zenetik bertatik. Urgellek (1987) esandakoaren ildotik, euskaraz idatzi nahi zuen oro aukeraketak egitera behartuta zegoen. Izan ere, beste hizkuntza baten idazketa sistema euskarara moldatu beharra zeukaten (Mixelena 1978 *apud* Urgell 1987).

Mujikaren (1997) lanera itzuliz eta lehen esan bezala, aipatu beharra dago grafia frantsesa ahozkotik urrundu zuela hasieratik latinarekiko egoera diglosikoak, frantsesez mintzatu arren, idatziak latinez egiten zituztelako, ahozko frantsesa islatu beharrean, grafia etimologikoei eutsiz. Gerora idazmolde “fonetikoagoak” sortzen saiatu ziren arren, *bel francois* deiturikoa esaterako, ez ziren orokortzera heldu eta, beraz, aurreko ortografia sistemarekin jarraitu zuten. Gainera, XIII-XIV. mendeetan zehar, hainbat aldaketa pairatu zituen ahozko frantsesak, idatzian islatu ez zirenak, mintzoa eta idatzia elkarrengandik hasierako egoeran baino gehiago urrunduz. Horretaz gain, idazkera etimologikoak ere hedatzen hasi ziren, baita familia bereko hitzen antzeko idazkera, nahiz eta ahozkoan

ordurako ageriko parekotasunik ez izan. Fenomeno hauek pilatuz joan ziren mendeetan zehar gaur egungo egoerara heldu arte.

2.4. Corpusaren analisia

2.4.1. Transkripzioaren inguruko zenbait ohar

Aztergai dugun gutunerian dakusagun grafiaren deskribapenarekin hasi baino lehen, delako grafiak islatzen bide duen fonetika adierazten duen transkripzioari buruzko zenbait ohar egitea komeniko litzateke. Izan ere, badira zenbait berezitasun, azalpen gehigarria beharko dutenak.

Esan beharra dago, zenbait kasutan transkripzio hertsia egin dela arrazoi jakinengatik hala zegokionean, beste batzuetan transkripzio lausoagoa egin den bitartean. Honen arrazoa, transkripzioa testu idatzietatik eta ahozko ekoizpenaren arrastorik gabe egiterakoan erabateko ziurtasunik eza izan da, zalantza uneetan, ortografiara lerratuz. Bereziki aipagarria da palatalizazioaren kasua. Hamar egileetatik bik baino ez dute sudurkariaren palatalizazioa grafikoki adierazten eta, beraz, palatalizazioa adierazten duten eskutizetan baino ez da /j/ modu hertsian transkribatu. Gainerako testuetan palatalizazioa gauzatzen zutelako inolako frogarik izan gabe eta lapurtera despalatalizatzaileen artean aipatzen dela kontuan izanik (Oñederra 1987, 30), /n/ fonemaren oinarrizko forma transkribatu da.

Transkripzio zehatzagoen artean honekin lotua herskari horzkarien aurreko sudurkariak pairatutako horzkaritze bilakabidea diakritikoaz markatu da, ez erabat automatikoa den bilakabidea bera adierazteko asmoz, baizik eta palatalizazio eza nabarmentzeko. Gainera, kontsonante albokariaren kasuan ere ez da palatalizaziorik transkribatu, sudurkariaren kasuan bik adierazten bazuten ere, albokariaren kasuan batek ere ez duelako grafikoki markatzen. Beste bilakabideak adierazi egin dira transkripzioan, baina aurreragoko ataletan azalduko dira.

Zenbait grafiak zalantzak sortzen dituzte. Horietako bat, oso hitz gutxitan agertzen den <ll> digrafoa da. Esan bezala, aztertutako testuen egileek frantses grafia sistema zuten oinarri, non aipatutako digrafoak igurzkari sabaikariak adieraz ditzakeen. Hala ere, hiru

motatako <ll>hun hitzak aurki daitezke *corpusean*. Batetik leudeke, frantsesetik mailegatutako formak, “Molleres” bezalakoak. Bestetik, euskal jatorriko hitzak izan arren, frantses grafia mailegatuaz idatzitakoak direnak. Agerpen hauen barruan bi egoera bereiz daitezke. Lehenengoan frantseseko digrafoak fonema bakarra baino ezin du adierazi, adibidez, “nolla” bezalakoak, non <ll> digrafoak /l/ fonema baino ezin ordezkatu dezakeen. Bigarrenean, delako digrafoak islatzen duen fonema albokaria ala palatala den zehazki jakin ezin daitekeena, “otsaillaren”. Beraz, aurreko paragrafoan azaldutakoa kontuan izanik eta ortografiari lerratzuz, /l/ fonemaren bidez transkribatu da agerpen batean salbu “fammillarat”. Ikus daitekeenez, <mm> digrafoa darabil, hitz honen frantses idazkeraren bestelakoa, beraz, baliteke bai idazkera bai ahoskera inguruko beste hizkuntzaren batetik hartuak izatea. Ondorioz, kasu zehatz honetan, <ll> ez da albokari bezala transkribatu, /j/ bezala baizik.

Azkenik, transkripzioan zehar erabilitako ikurrak hiru dira. Lehenik, OÇE lanaren egileek gutun originaletan, nahiz eta ondo irakurri, ulertzen ez diren hitzak edo hitz zatiak gurutze (†) batez markatu dituzte, lan honetan egindako transkripzioan ere era berean markatu direnak. Ondoren, originalean ziurtasunik gabe irakur daitezkeen hitzak edo hitz zatiak eta originalean egon ez arren, falta diren hitz zatiak, zeinak gabe zentzua galduko luketen, kortxete artean ageri dira bai lehenengo bai hirugarren zutabeetan. Lan honetan osatutako transkripzioan bakarrik erabilitako parentesiek, berriz, bi kasutan baliatu dira. Palatalizazioaren gauzatzea ziur adierazten den eskutitzetan, /i/ fonema palatalizazioaren aurretik ahoskatzen den edo ez zalantza kasuetan eta testu originalean hitz baten errepikapena adierazteko.

Ondoko ataletan, aztertutako gutunen idazleen fonema inbentarioa osatzen duten unitateak biltzea izango da helburua. Lehenik, testuetako grafiaren analisisiaz baliatuz fonemak eta hauen islapen grafikoa zehazten saiatuko da. Ondoren, autoreek idazterakoan islatutako bilakabide ingurunedunak eta hiztunengan automatikoak direnak kontuan izanik, alofonoak zehaztuko dira.

2.4.2. Testuen grafiaren analisisia

Honako atalean, azpi-izenburuan ageri den bezala, *LD* itsasontziko gutuneriaren lehenengo hamar gutunetan aurki daitezkeen grafia aztertuko da. Horretarako, hots

multzoka antolatuko da analisisia (txistukari igurzkariak, afrikatuak, herskari ahoskabeak etab.), ondoren grafia bakoitza gutunean ageri den testuinguru zehatz bakoitzean zein hots adieraz zezakeen azalduz, beti ere hipotesia baino ez dela kontuan izanik. Gutunen egileen ahozkoa izan zitekeenaren hipotesi hau osatzeko, irizpide fonologikoak eta aztertzen ari den hizkerari buruz dakigunean oinarritu da azterketa. Beraz, autoreek baliatutako idazkerak euren ahoskeraz isla dezakeena kontuan izanik, testuen egileen ahozko ekoizpenaren hipotesi bat osatuko da.

Grafema bakoitza aztertzean, lehenik, aztertutako eskutitz guztietan edo gehienetan orokorrak diren erabilerak azalduko dira, ondoren salbuespen edo ez hain orokorretara igaroz. Esan beharra dago, atal honetan gaur egungo euskara batuaren ortografia arauak zehazten duten erabileraz bestelakoak aurkeztuko direla, gaur egungo ortografiarekin bat datozenak alde batera utziz. Beraz, bertan aipatzen ez direnak euskal ortografia modernoaren parekoak lirateke.

Gorago esan bezala, atal honetan, gutunen egileen fonemak zeintzuk diren ondorioztatzea da helburua, egileek grafema bakoitzaz zein fonema ordezkari lezaketan aztertuz. Esan bezala, aztertutako testuetan gaur egungo euskara batuaren ortografiaren araukin bat datozen erabilerak ez dira lan honetan aztertuko, baina kontuan hartuko dira lanaren amaieran osatuko den fonema taulan. Atal honen zabalera kontuan izanik, bertan azaltzen den informazioaren laburpen bat eskainiko da taula modura lanaren amaieran aurkezten den bigarren eranskinean, gutun bakoitzean aztertutako hots bakoitza ordezkatzeko idazleak zein grafia baliatu dituen azalduz.

- **Txistukari igurzkariak**

Sail honetako hotsei dagokionez, OÇE lanean aurkezten den eguneratutako grafiadun bertsioan gaur egungo ortografia arauetara lerratu dira. Hala ere, jarraian azalduko denez, txistukarien sailean hainbat grafia baliatzen dituzte gutunen idazleak fonema bera adierazteko, baita grafia bera fonema bat baino gehiago ordezkatzeko.

- <s>

Honako grafia orokorra da gutun guztietan. Grafema honen agerpenek ia salbuespenik gabe txistukari igurzkari apikaria (/s/) adierazten dute. Grafema hau hamar

testuetan erabiltzen da apikaria islatzeko bokal ondoren eta herskari ahoskabe baten aurretik. Horretaz gain, bokal arteko erabilera ere erabat orokorra da, zazpigarren gutunean salbu, ez baita testuinguru horretan baliatzen, /s̺/ adierazteko <ss> digrafoa darabilelako idazleak, hain zuzen, inolako salbuespenik gabe. Beste egile guztiek <s> eta <ss> darabiltzate bokal artean.

Bi testuinguru hauetaz gain, eskutitz gehienetan txistukari apikaria agertzen da hitz hasierako edo amaierako testuinguruan ere. Lau testutan bi testuinguruak agertzen dira, bai bokal aurreko hitz hasiera, bai bokal ondorengo hitz amaiera. Gainerako eskutitz guztietan bi testuinguru horietako bat ageri da gutxienez, laugarren gutunean salbu, zeinetan bokal arteko eta bokal eta herskari ahoskabe arteko testuinguruak bakarrik agertzen diren <s> grafemak /s̺/ fonema ordezkatzeko duela pentsa litekeenean. Azkenik, badira lehenengo eta hamargarren gutunetan hiru agerraldi zeintzuetan /s/ grafemak txistukari igurzkari apikaria adierazten duen dardarkariaren eta bokalaren artean, nahiz eta “coursu” hitza den agerraldi guztietan ageri dena. Gainera, aztertutako azken eskutitzean “coursu” idatzita agertzen da bi aldiz, beraz, baliteke hitz honen idazkera maileguaren jatorrizko hizkuntzatik hartu izana <s> grafemaz idatzita, edo hiztunak ez afrikatzea.

Txistukari igurzkari lepokaria (/s̺/) adierazteko berriz, aztertutako eskutitz guztietan erabiltzen da, dirudienez, <s> grafema, batean izan ezik, bosgarrenean zehazki, zeinetan <c>, <ç> eta <z> grafemak baliatzen diren. Fonema honen agerpenei dagokienez, bigarren eskutitzean izan ezik, beste guztietan bokal eta herskari ahoskabe artean aurki daiteke <s> grafemaz adierazita. Bigarren testuan, ordea, hainbat testuingurutan aurki dezakegu <s> grafema /s̺/ fonema adieraziz. Bestalde, apikaria ordezkatzeko duen kasuan bezala, testu gehienetan agertzen da bokal ondoko hitz amaieran edo bokal aurreko hitz hasieran. Lehenengo testua da bi hauetako bat ere eskaintzen ez duen bakarra, 2-7-8 gutunetan, ordea, biak aurki daitezke.

- <ss>

Digrafo hau hamar gutunetatik zortzitan erabiltzen da, 3 eta 6 eskutitzetan salbu. Agertzen den testuinguru guztiak bokal artekoak dira, digrafoa frantsesetik hartua izanik, bokal artean baino ez delako gauzatzen, ordezkatzeko duen fonema egileen arabera aldatzen den arren. Adierazten duen lehen fonema eta agerraldi gehienetan dena, /s̺/

fonema da, <ss> grafia erabiltzen den gutun guztietan agertzen dena. Apikariarekin jarraituz, bada testu guztietan aurki daitekeen testuinguru zehatza, /o/ eta /a/ artean, agertzen diren item lexikoen arabera. Baina bokal konbinazio ezberdin asko aurki daitezke eskutitz guztietan zehar.

Aurreko grafemak bezala, honek ere, bai apikaria bai lepokaria ordezkatzeko ditu, nahiz eta lepokariaren kasuan lagin osotik hiru gutunetan bakarrik agertu; 2, 7 eta 8. Honetan ere ez dago bokal artea ez den beste testuingururik; gainera, zortzigarren eskutitzean agerpen bakarra dago <ss> digrafoak /s̺/ ordezkatzeko duena, beraz, bazterreko erabileratzat har genezake. Grafia honek igurzkari lepokari bezala erabilera zabalagoa daukaten egileak 2 eta 7 gutunetakoak dira.

- <Z>

Aztertutako laginean, 5, 7, 8 eta 9 gutunetan baino ez da erabiltzen. Lau eskutizetan erabiltzen da /s̺/ fonema adierazteko. Kontuan hartu beharra dago idazle gutxi baliatzeaz gain, erabiltzen dutenen testuetan ere agerraldi gutxi aurki ditzakegula. 8 eta 9 testuetan adibidez, bokal ondoko hitz amaieran baino ez da agertzen, kasu instrumentala adierazteko. Bederatzigarren aipatutako instrumentalean “gouçijaz”, eta egilearen beraren abizen frantsesean baino ez da agertzen, dardarkari osteko hitz amaieran “Diyarz”. Zortzigarren gutuneko agerraldietan /s̺/ edo /t̺/ fonemak ordezkatu ditzake. OÇE lanaren egileek /s̺/ eguneratu dutenez eta hautu horren aurkako inolako argudiorik ezean, lan honetan eskaintako transkripzioan ere /s̺/ bezala transkribatu da, /t̺/ izateko aukera ere adieraziz. Hauetako bi instrumentalaren morfema lirakete; beste biak berriz, “noiz” eta “naiz” hitzak.

Zazpigarren eskutitzean, nahiz eta testuinguru gehiagotan agertu grafema hau, ezeztapen partikulara mugatua dago, ez baita beste inolako hitzetan agertzen. Ondorioz, bosgarren testua litzateke <z> grafemaren erabilera zabalena daukana; hala ere, erabilera hedadura hori “gaztea” hitzean baino ez litzateke gauzatuko, aipagarria izanik, 4. eta 7. testuetako autoreek “gaste” idazte baitute. Gainerako agerpenak aurreko testuetan bezala instrumentalean eta “naiz” hitzean baino ez direlako aurkitzen. Azaldutako eremuetatik kanpoko agerraldi bakarra “sanblaz” da, baina akats bezala har daiteke, santuaren izenaren idazkera ez delako <z> grafemarekin inoiz idatzi, gutxienez testuaren egileak inguruan izan zitzakeen hizkuntzetan. Beraz, kasu honetan, /s̺/ transkribatu da. Era

berean, akats bezala ere uler daiteke /s/ behar lukeena ordezkatzeko <z> grafema erabili izana “ezposaren” idaztean.

- <ç>

Txistukari igurzkarien artean lepokaria bakarrik ordezkatzeko baliatu da, zazpi gutunetan; 1, 3 eta 4 idatzietan ez da grafia hau erabiltzen, horretarako aukerak izan arren. Aurreko grafian bezala, testu bakoitzean neurri desberdinean erabiltzen da. /s/ ordezkatzean eskutitz guztietan aurki daiteke bokal artean. Hala ere, testuinguru honetaz gain, bokal aurreko hitz hasieran ere aurki dezakegu, bigarren eta seigarren gutunetan izan ezik.

- <c>

Grafema hau hiru fonema adierazteko erabiltzen dute eskutitzen egileek, baina dagokigun atalean /s/-ari erreparatuz esan dezakegu ia testu guztietan aurki dezakegula bokal aurrean eta hitz hasieran kokatuta. Guztietatik, 9 testuko egilea da <c> grafema txistukari lepokaria adierazteko erabiltzen ez duen bakarra. Bokal aurreko agerpenei dagokionez, azpimarragarria da ez dela frantsesez bezala /e/ eta /i/ aurretik bakarrik ageri, /a/, /o/ eta /u/ bokalen aurrean ere ageri da, “ducula”, “caitut” eta “espaicaoscat” esaterako. Aipagarria da /o/ bokalaren urreko hiru agerpen baino ez daudela; “hemecorcy” 7 testuan eta “guicon” 4 eta 10 gutunetan. Azken adibideaz aipatu beharra legoke hitz beraren bestelako idazkerak aurki ditzakegula aztertutako idatzietan, 2 gutunean “guissona” dakusagula eta 7 testuan berriz “guiçon”.

- <ch>

Frantses grafia sisteman bezala, digrafo hau /j/ fonema adierazteko erabili dute eskutitzen egileek zenbait kasutan. 1, 3 eta 4 testuetan izan ezik, gainerakoetan erabiltzen da behin bederen. Agerraldi gehienetan bokal artean eta hitz hasieran daude. Bi hauetaz gain, salbuespen bakarra legoke, non /n/ ondoren agertzen den, “haranchipiry” izen bereziaren hainbat agerraldi. Izen honi dagokionez, bi transkripzio aukera leudeke, batetik /j/ igurzkaria, eta bestetik /tʃ/ afrikatua. OĈE lanaren egileek gutun originalaren idazkera bera mantendu dute aipatutako azken adibidean.

- **Txistukari afrikatuak**

Sail honetan aurki daiteke aztertutako *corpus*aren autoreen arteko alderik handiena; baita egile bakoitzaren barne inkonsistentziak ere. Hau da, fonema bat hainbat grafemaren bidez islatzea testuinguru bertsuetan.

- <s>

Lehenago azaldutako /s/ eta /ʃ/ fonemen ordezkapenaz gain, salbuespen modura ageri da aztertutako laginean gutun bakarrean baliatu izana <s> grafema ziurrenik, /tʃ/ txistukari afrikatu lepokaria adierazteko, 6 gutunean hain zuzen, zeinak ez duen jatorri ezagunik. Fonema hau, bi testuingurutan adierazi du egileak <s>ren bidez. Batetik, dardarkariaren ondorengo hitz amaieran eta bestetik, bokal ondoko hitz amaieran. Hala ere, testuinguru bakoitza behin baino ez da agertzen (“bors”, “bihos”).

- <ss>

Digrafo honi dagokionez, ezin daiteke esan txistukari afrikaturik sistematikoki ordezkatzeko duenik aztertutako testuen egileen eskuetan; izan ere, OÇE ikerketaren egileek “amaso” bezala berridatzitako 10 gutuneko “amasso” hitza da testuetan aurki daitekeen adibide bakarra. Hala ere, transkripzioan -so amaiera atzizki txikigarri bezala interpretatzean, /s/ fonemaz transkribatzearen hipotesia baieztatzeko *Fonética Histórica Vasca* (Mitxelena 1990) kontsultatu da, delako morfema /s/ fonemarekin noizbait lekukotua izan den jakin nahian, baina ez da inolako aipamenik ageri, beraz, kontrako frogarik ezean, morfema txikigarri bezala interpretatu da. Hau da, arrazoi morfologikoak direla eta erabaki da atzizki txikigarriaren jatorrizko txistukari afrikatu sabaikariaz transkribatzea.

Hala ere, esan bezala, interpretazio bat besterik ez da eta ikerketa sakonagoa egin beharko litzateke, baita OÇE lanaren egileek ere morfema txikigarria izan zitekeela erabakitze kontuan izandako argudioak ezagutzea ere komeniko litzateke. Beraz, <ss> digrafoak ordezkatzeko dituen fonema bakarrak txistukari igurzkari apikari eta lepokaria direla ondoriozta genezake, baita oraintxe bertan aipatutako afrikatu sabaikaria. Patxi

Salaberrik (2009, 229) ere *-sso* atzizki txikigarriarekin erlazionatuta egon litekeela aipatzen du, hainbat testutako adibideak eta zenbait egilek esandakoa kontuan izanik.

- <ç>

Oso agerraldi gutxi daude non <ç> grafiak afrikatu lepokaria /tʃ/ adierazten duen; izan ere, 6 eta 7 testuetan baino ez zaio erabilera hori ematen, “gorainçi”, “desiraçen” eta “esconçeas” hitzetan. Horretaz gain, bi idatzi horietako bakoitzean oso gutxitan erabili da horrela; 6 gutunean esaterako, aipatutako “gorainçi”, “goraici” eta “gorainci” idatzita ere aurki daitezke. Hala ere, adibide hauen azken idazmoldea sistematiko bihurtzen da 6 testuan aurrera egin ahala, beste bi idazkerak salbuespenak izanik. Bi gutunetan sudurkari hobikariaren eta bokalaren artean kokatzen da, baina zazpigarrenean adibidez, agerraldi bakarra dago, “esconçeas”. Testuko pareko testuinguruetan beste grafia bat ageri da “aguincen” hitzean adibidez. Testu honen egileak beti baliatzen du <c> grafema /tʃ/ adierazteko, azaldutako adibideetan izan ezik.

- <c>

Txistukari igurzkari lepokaria eta afrikatu lepokaria islatzen ditu 1, 2, 3, 5, 6, eta 7 testuetan. Lehenengo bi gutunetan afrikatu lepokaria islatzeko grafema bakarra da, gainerako idatzietan hainbat grafiarekin errepresentatzen da. Testuinguruei dagokienez, bokal artean gauzatzen da idatzi guztietan, bosgarren eta zazpigarrenean izan ezik, bokal artean <tç> digrafoa baliatzen dutelako bi autoreek. Honetaz gain, sudurkari hobikari eta bokal artean 2, 5 eta 7 gutunetan, eta dardarkari eta bokal artean ere aurki genezake 2, 5, 6 eta 7 gutunetan. Kasu hauetan afrikatutzat interpretatu dut, batzuetan arrazoi morfologikoengatik eta besteetan sudurkari eta dardarkari ondoko txistukariak afrikaritzea eragiten duen bilakabide inguruneduna kontuan izanik.

- <x>

Hamar eskutizetatik, 1, 3, 4, 5, 6, 7, eta 8 idatzietan agertzen da. Lehenengo gutunean izan ezik, gainerakoetan ordezkutzen du /tʃ/ fonema bokal arteko testuinguruan, nahiz eta agerraldi gutxi aurki daitezkeen. Honetaz gain, afrikatu lepokaria ere adierazten

du 1 eta 7 gutunetan “balix” eta “ahanxi” adibidez, baina apikariaren kasuan bezala, agerraldi gutxi batzuk baino ez dira ageri “axeguin” esaterako.

- <ts>

Oso gutxitan agertzen da digrafo hau aztertutako laginean. Hirugarren gutunean baino ez da erabiltzen, hitz beraren bi agerralditan, “hainits”, afrikatu lepokaria adieraziz. Baliteke azertu gabeko eskutizetan erabilera zabalagoa izatea, baina landutakoetan bazterreko erabilera izan daiteke erabilera murrizta ikusita.

- <tc>

Laugarren gutunean digrafo honek baino ez du /tʃ/ fonema adierazten. Horretaz gain 3, 5, 6, 7, 8 eta 10 eskutizetako egileek ere baliatzen dute, nahiz eta beste grafia batzuk ere erabili, <tç> eta <tz> adibidez. Zazpigarren idatzian behin baino ez da agertzen; seigarrenean, berriz, hirutan, beti testuinguru berean. 5, 8 eta 10 testuetan askoz zabalagoa da agerraldien zerrenda, beti ere bokal artean kokatutakoa, *-tze* morfema adierazterakoan zehatzago.

- <tç>

5, 7, 8, 9 eta 10 idatzietan ageri da /tʃ/ adierazteko, gehienetan bokal arteko testuinguruan, hamargarren testuan salbu. Bertan baino ez da sudurkari hobikariaren ondoren agertzen /tʃ/ hotsa adieraziz, hitz beraren bi lekukotasunetan, “untçi”.

- <tz>

Digrafo hau gutxien erabilitakoen artean kokatzen da, 5, 8 eta 9 gutunetan soilik aurkitzen baita /tʃ/ adieraziz. Lehenengoan, “bihotz” eta “orthoropitzco” hitzak baino ez leudeke eta bigarrean berriz, “egotzaz” lekukotasuna bakarrik aurki daiteke, eta azkenengoan “bihotz” eta “miarritz” dira agerpen bakarrak.

- <tx>

Honako digrafoa 3, 4 eta 9 testuetan aurki daiteke. Lehenengo bietan txistukari afrikatu apikaria adierazten du, bederatzigarrenean bai apikaria (“otxaillaren”) bai lepokaria (“contignuatxia”) islatzen ditu.

- <tch>

Bost agerraldi daude, 3, 4, 6, 8 eta 10 gutunetan banatuta, non /tʃ/ fonema ordezkatzeko duen. Agerpen guztietan bokal arteko testuinguruan ageri da, adibidez, laugarren gutuneko “etchia” hitzean.

- <ch>

Digrafo honen bidez, igurzkari sabaikariaz gain, afrikatu sabaikaria ere adierazi zuten testuen egileek, 3, 4, 5 eta 10 gutunetakoak izan ezik. Testuinguruei dagokienez, bokal artean, dardarkariaren ostean eta albokariaren ondoren kokatzen da afrikatuaren grafia hau.

• **Herskari belar ahoskabea**

Ondoko grafema eta digrafoei dagokienez, eta azpтитuluak dioenez, denek adierazten dute fonema bera, herskari belar ahoskabea. OĈE lanaren grafia eguneraketan <k> grafiaz ordezkatu dituzte ondoko guztiak.

- <c>

Txistukari afrikatu eta igurzkaria islatzeaz gain, hamar idaztietan /k/ fonema ere islatzen du gaur egungo inguruko erromantzeetako ortografian bezalaxe. Kasu honetan, gaztelaniako eta frantseseko erabilera berbera dakusagu aztertutako gutunetan. Alegia, /i/ eta /e/ bokalen aurretik salbu, gainerako testuinguruetan baliatzen da /k/ fonema adierazteko. Beraz, ez da grafema-fonema harreman honen zehaztasun handiagorik azalduko.

- <qu>

Digrafo honek fonema bakarra ordezkaten du testu guztietan. Aztertutako gutunen artean, badira hiru idazle /e/ eta /i/ aurretik bakarrik ez, /a/ bokalaren aurretik ere lekukotzen dutenak. 2, 7 eta 9 eskutitzetan aurki daitezke honen adibideak, zazpigarreneko “elquarganatçen” esaterako.

- <q>

Grafia honek, aurrekoak bezala /k/ fonema bakarrik islatzen du, baina <qu> digrafoaz alderatuta askoz agerpen gutxiago daude aztertutako *corpusean*; 7, 8 eta 10 gutunetan behin ere ez da erabili. Besteetan berriz, zenbait testuingurutan aurki daiteke edozein bokalen aurretik, baita hitz amaieran ere 2 eta 5 testuetan.

- <ch>

Lekukotasun bakarra dago zeinetan digrafo honek /k/ fonema adierazten duen, gainerakoetan txistukarien saileko fonemak ordezkatur. Delako agerraldia 6 eskutitzeko “eschribaceco” litzateke. Ikusten denez, txistukari igurzkariaren eta dardarkariaren artean kokatzen da. Gainerako gutunetako egile guztiek <c> grafia darabilte item lexiko hori idaztean.

• **Herskari biezpainkaria**

Orokorrean, grafema baliatzen dute gutun guztien egileek, gaur egungo euskal ortografiarekin bat eginez, baina badira zenbait salbuespen aztertutako testuetan, zeintzuetan <u> eta <v> grafemak erabili diren.

- <u>

Grafema honek /b/ fonema adierazten du aztertutako *corpusaren* lekukotasun bakarrean, 8. gutuneko “liuera”. OÇE lanaren egileek grafemaz ordezkatu dute.

- <v>

Gorago esan bezala, orokorrean grafema baliatzen dute testuen egileek /b/ fonema adierazteko; hala ere, zenbait kasutan <v> grafia ageri da 2 eta 3 idatzietan. Adibidez, 2. gutuneko “escrivacendisut” eta “servait”, edo 3. gutuneko “etcheverriari”.

- **Herskari palatalak**

OĈE lanaren egileek egindako ondoko idazkeren eguneraketan, <j> grafema baliatu dute kontsonante sabaikari epentetikoa ordezkatzeko. Sudurkari palatala adierazteko berriz, <ñ> grafema darabilte /ɲ/ adierazten duten bi egileen gutunetan.

- <i>

Lehenengo eta hirugarren gutunetan ageri da <i> grafema kontsonante sabaikari epentetikoa adierazten. Lehenengo testuan grafema hau baino ez du erabiltzen egileak /j/ fonema islatzeko, “guciiac” eta “obeciiena” kasuetan esaterako. Hirugarrenean berriz, <j> grafemaz adierazten da sistematikoki, salbuespen bakarra egonik, “amabiiian”.

- <j>

Testu guztietan ageri da /j/ kontsonante palatala adierazteko, 8 testuan izan ezik, ez baita hots hau duen hitzik erabili. 9 testuan ere, epentesiak dira hots honen agerraldi bakarrak, adibidez “gucija” eta “guçijec”.

- <gn>

Aztertutako *corpus*etik 2 eskutitzean bakarrean ageri da digrafo hau /ɲ/ sudurkari palatala adierazteko, “baignan” eta “eguignedu” adibidez. Idatzi hau da sudurkari palatala adierazten duten bi bakanetako bat. Beste testu guztietan ez da inola ere adierazten sudurkari hobikariaren palaltasuna. Ondorengo atalean azalduko da zehatzago gutunetan susma daitekeen palatalizazioaren egoerari buruzko informazioa.

- <ñ>

Grafema hau da /ɲ/ palatala adierazteko baliatutako beste grafema bakarra, 8 gutunean ageri dena. Grafema honen jatorria ez da frantsesa, sistema frantsesean ez baita existitzen halako grafemarik. Mujikak (1997, 29) dionenez, gaztelaniaren sistemak eragin gutxi izan zuen Iparraldeko idazleengan. Grafia honen erabilera Mujikak aipatutako zeharkako eragin murrizetako bat izan liteke, edo inguruko beste hizkuntzaren batekoa. Grafema honen jatorriak azterketa sakonagoa behar luke.

- **Herskari hasperendunak**

Hasperenari dagokionez, ez da sistematikoki gauzatzen *corpusean* zehar, nahiz eta gutun guztietan aurki daitekeen /h/ fonemaren adierazpena. Kontsonante hasperendunen kasuan ordea, ez da erabilera orokorturik antzematen. Hamar eskutizetatik 1, 5, 6, 7, 8 ta 10 testuetan baino ez dira ageri. OĈE lanaren grafia eguneraketan, testuen autoreek erabilitako digrafo berak darabiltzate.

- <th>

Aipatutako sei gutunetan aurki daiteke, eta <th> da agerpen gehien dituen kontsonante hasperenduna. Hala ere, desoreka handia dago gutunen artean, 5 eta 7 eskutizetan gainerakoetan baino askoz agerraldi gehiago pilatuz. Kasu gehienetan, hasperenik gabeko herskariaz idatzirik ageri dira beste gutunen batean. Adibidez, 7 gutuneko “baithan”, 2 eta 9 testuetan “baitan” idatzita ageri dena.

- <kh>

Digrafo honen agerpen bakarra dago aztertutako *corpus* osoan, “ikhusteco”. Bosgarren gutunean aurki daiteke, kontsonante hasperendun gehien dituen gutunean hain zuzen.

- <pp>

Digrafo honek beste zenbaitek bezala zalantzak sortzen ditu transkripzioa egiterakoan, bi fonema ordezkari ditzakeelako. Alde batetik, herskari bizpainkari ahoskabea dela pentsa liteke, aztertutako gutunetan <h> grafemaren bidez osatutako digrafoaz adierazten dutelako aurreko herskariaren hasperena. Hala ere, kontuan hartu beharra dago, ez dela behin ere <ph> grafemarik agertzen, beraz, posible litzateke autoreek /p^h/ fonema adierazteko erabilutako modu bakarra kontsonante geminatua izatea. Bi adibide baino ez daude *corpusean*, “apachappanaq” eta “apparancias”. Bi adibide hauen grafia eguneratzean, hautu ezberdina egin dute OÇE lanean. Lehenengoan hasperenik gabeko herskari bezala adierazi dute, /p/ alegia; bigarrenean berriz, herskari palatala islatuz, <ph> digrafoaz. Interpretazio baten edo bestearen alde edo kontra egiteko argudiorik gabe, OÇE lanean egindako irakurketarekin bat egin da.

• **Bokalak**

Lau dira sail honetan gaur egungo sistematik aldentzen diren grafemen erabilerak, <v>, <y>, <ou> eta <j>. Sail honetako hotsen eguneraketa, herskari belar ahoskabearen kasuan gertatzen den bezala, gaur egungo euskal ortografia sistemara lerratu da OÇE lanean aurkezten den grafia eguneraketan.

- <v>

Hirugarren gutunean baino ez da erabilera honen arrastoa aurkitzen. Gainera, agerraldi gutxi batzuk baino ez daude, hitz beraren aldaera direnak, “vngui” eta “vnguida”, hain zuzen.

- <y>

Testu guztietan ageri da grafia hau /i/ fonema adierazteko, 6 gutunean izan ezik, eta kasu guztietan, hitz amaieran kokatzen da. Baina honetaz gain, /j/ fonema ere ordezkatzeko du hitz hasieran, /n/ ondoren eta kasu bakarrean dardarkariaren ondoren. Hala ere, kasu gehienetan bokal artean /j/ bihurturik ageri da.

- <j>

Gorago aipatutako /j/ fonemaz gain, /i/ bokala ere ordezkatzeko erabili dute eskutitz gehienetan, 5, 7 eta 8 testuetakoak salbu. Testuinguruei dagokienez, hitz hasieran ageri da beti, kasu bakarrean izan ezik, “anayamaitja”.

2.4.3. Bilakabide ingurunedunak

Behin grafiak berez erakutsitako fenomenoak aztertuta, alofonoen bilaketari ekingo zaio. Horretarako, bilakabide ingurunedunen bitartez sortutako alofonoei erreparatuko zaie, hau da, asimilazio eta disimilazioek eragindakoei. Lehenik, euskararen hiztun guztiongan automatikoak diren bilakabideak aipatuko dira, ondoren, aztertutako lagina osatzen duten egile batzuegan bakarrik antzeman daitezkeen bilakabideetara igaroz.

Aurreko atalak uste baino espazio gehiago harturik, eta atal honetako helburua alofonoen bilaketa izanik, hauen agerpena eragiten duten bilakabideak bakarrik aipatuko dira. Hau da, alofonorik eragiten ez dituzten bilakabideak, bokal asimilazioak esaterako, ez dira kontuan izango ondoko analisisian. Arrazoi beragatik, ez da aurreko atalaren pareko analisi sakonik eskainiko, emaitzen aurkezpena mugatuz. Gainera, palatalizazioaren inguruko azpiatala salbu, ondorengoak *corpusean* inolako arrastorik aurkitu ezinda, hipotesi hutsa lirateke, egileen fonema inbentarioaren hipotesi ahalik eta osatuena eskaini nahian egina.

- Sudurkari hobikarien asimilazioak

Hasteko, sudurkari hobikariak ondoko herskariaren arabera pairatu ditzakeen ahoskune asimilazioei dagokienez, sudurkari hobikaria [n] izatetik, horzkari [ŋ], edo belar [ŋ] izatera igaro daiteke, besteren artean. Asimilazio hauetaz gain, aurreko bokalaren eraginez gertatutakoak ere badira. Sail honetan legoke palatalizazioa, aztertutako testuetan bereziki fenomeno aipagarria dena. Izan ere, gainerako bilakabideak behin ere adierazten ez badira ere, bada palatalizazioa adierazten duen egilerik. Garai, geografia kokapenaren arabera, eta lapurtarra hizkera despalatalizatzaileen artean aipatu izan denez,

espero genezake palatalizazioaren adierazpenik ez aurkitzea, baina hiru egilek grafikoki adierazten dute.

Bada palatalizazioa bezalako bilakabide ingurunedun bat ez adieraztea azaltzen duen arrazoi bat, Mitxelenak berak, P. Bartolome eta Juan Antonio Mogelen lanetan ikusitakoaz diharduela esan bezala:

Se hace duro creer que este “descuido” en indicar por escrito un rasgo de la nasal que sin duda estaba presente en la pronunciación del vizcaíno oriental de Eibar-Marquina sea casual si se tiene en cuenta sobre todo que escribir *n* en tales casos parece ser la regla en fray Bartolomé (...). La explicación del hecho puede acaso buscarse a lo largo de la línea siguiente. La palatalización en tales casos era “asémica” -creo que Azkue empleó este término, pero puedo equivocarme-, y puramente contextual (...) y todo rasgo cuya realización puede ser confiada con toda tranquilidad al automatismo del hablante (o del lector), no necesita en rigor ser indicado. (Mitxelena 1978-79, 212 *apud* Urgell 1987, 378-379)

Beraz, baliteke palatalizazioa grafikoki adierazten duten hiru egileez gain, gainerako autoreren batek ere palatalizazioa gauzatzea ahozko ekoizpenetan, nahiz eta idatzizkoan ez islatu. Aipatu bezala, hiru gutunetan baino ez da palatalizazioa adierazten. Bigarren eta bederatzigarren eskutizetan frantses grafia baliatzen dute egileek, <gn> digrafoa, hain zuzen; adibidez “contignuatxia”. Zortzigarrenean, berriz, gaztelaniako <ñ> grafiaz adierazita ageri da, “ceiñetan” esaterako. Testu hauetako bakoitzean lau agerraldi aurki daitezke.

Gorago aipatutakoa kontuan izanik, ezin da ziurtatu idatzizkoan palatalizazioa adierazten ez duten egileek ez zutenik ahozkoak gauzatzen, beraz, adierazitako bi gutunetan baino ez da fonema palatala transkribatu, besteetan sudurkari hobikaria transkribatuz. Esan beharra dago, transkripzioan sudurkari hobikariaren horzkaritzea diakritikoaz adierazteko arrazoietako bat, palatalizazioaren ez adieraztea nabarmentzea izan dela.

– **Bokal arteko herskari ahostunak**

Atal hau ez da adierazpen grafikoetatik abiatzen. Gaur egungo euskararen hizkera guztietan gauzatzen diren bokal arteko herskariaren ahultzeei erreparatuz, landu den *corpus*aren egileen hizkeran ere gauzatzen zelako hipotesia planteatu da, transkripzioan

delako bilakabide hipotetikoetako emaitzak eskainiz. Beraz, bokal artean kokatutako herskari ahostunen hurbilkaritzea ere transkribatu da bilakabide automatikoen ildotik jarraituz ([β], [ð], [ɣ]).

- **Txistukari ondoko ahoskabetzea**

Bilakabide ingurunedun honi dagokionez, testuak lapurtarrak izanda, bilakabide honek idatzien autoreen hizkeraren parte izan beharko luke. Izan ere, 4 eta 8 eskutitzetan adibide bat ere aurkitu ez arren, beste guztietan aurki daiteke, bat besterik ez bada ere. Bilakabide honen adibide ugariak ezeztapen partikularen ondoko aditz laguntzaileetan daude, “estugu”, “estucube” edo “estuben” esaterako. Hala ere, esan bezala, lau gutunetan ez da bilkabide honen adibiderik ageri, kontradibideak baizik, “ecdiru” esaterako. Aipagarria da hirugarren testuan “es deus” eta “estugu” aurki daitezkeela, bilakabide honen sistematikotasun eza erakusten duena.

- **Bokalen artean sortutako epentesiak**

Aztertutako testu gehienetan ez da inolako epentesirik ageri, baina badira hiru gutun zeintzuetan bi epentesi ezberdin aurki daitezkeen. Batetik, /i/ bokalaren ondoren eta beste bokal baten aurretik sortutako kontsonante palatala epentetikoa legoke, 1, 2 eta 3 eskutitzetan ageri dena. Bi grafemaren bidez adierazi da *corpusean*. 1 eta 3 testuetan <i> grafemaz ordezkatu dute egileek aipatutako epentesia. Bigarren idatzian, berriz, <j> grafema baliatu zuen autoreak, “maitija”, “huncija” eta “gorrancijaq” kasuetan adibidez.

Beste epentesia /u/ eta /a/ edo /e/ artean sortutako [β] alofonia litzateke. Honetan ere, bi grafema ageri dira: <v> bigarren gutunean ageri dena (“conseluvaq”), eta , gainerako agerraldi guztietan baliatutakoa, 1 (“erecibitunuben”), 3 (“esxituba”), 4 (“baducubela”) eta 9 (“Batçubec”) testuetan, baita bigarren testuan ere (“iduridubena”).

2.5. Azterketaren emaitza: fonema taula

Grafia aztertutako atalean gutunetan ageri den fonema inbentarioa lortu ondoren, alofonoen bilketa osatu da egile bakoitzak bere hizkeran gauzatzen diren bilakabide

ingurunedunen lekukotasunen bitartez. Beraz, jarraian aurkeztuko den taulan, *corpusa* aztertzerakoan, egileen fonema eta alofono inbentarioan leudekeenak azalduko dira. Honetarako, aurreko analisiez gain, testuetan gaur egungo idazkera sistemarekin bat datozen fonema islapenak ere hartuko dira kontuan, nahiz eta aurreko azterketan kontuan hartu ez. Honelakoak dira adibidez, /a/, /e/ eta /o/ bokalak.

Hasperenaren grafiaren analisisian ikusitakoaren arabera, esan daiteke bai hasperenaren bai kontsonante hasperendunen adierazpen grafikoa ez dela sistematikoa. Hala ere, gauzatzen zutela argudiatzeko nahikoak dira lanean batutako agerpenak.

Corpusaren grafia aztertu den atalean txistukarien sailean aipatuenez, testuen egileek grafia berak erabili dituzte hainbat hots adierazteko, apikari eta lepokari arteko bereizketan eragiten duena. Honen ondorioz, apikari/lepokari bereizkuntzari dagokionez, zalantza sor daiteke. Hala ere, orokorrean esan daiteke apikaria eta lepokaria bereizten zituztela, nahiz eta grafikoki nahastu.

Jarraian, lanaren hasieran aurkeztutako fonema taula ekarriko da. Oraingoan, gaur egungo fonemak ekarri ordez, lan honetan egindako hipotesian aurkeztutako fonemen eta alofonoen zerrenda osatuz. Hauetaz gain, lanean zehar aipatu ez arren, grafiaren analisisian aurkitutako gaur egungo ortografiaren pareko erabilerek ordezkatzen dituzten fonemak ere ekarri dira, inbentario ahalik eta osoena eratu nahian. Taulan ageri diren koloreen erabilera lanaren hasierako bi tauletan baliatutakoa izango da, alofonoak gorritz agertuko dira, Iparraldeko hots eksklusiboak berriz, berdez.

Kontsonanteak	Ezpainkariak		Ezpain-horzkariak		Horzkariak		Hobikariak		Sabai-hobikariak		Sabaikariak		Belarrak		Glotalak	
	-A	+A	-A	+A	-A	+A	-A	+A	-A	+A	-A	+A	-A	+A	-A	+A
Herskariak	P	b			t	d							k	g		
Igurzkariak		β	f			δ	ɬ	ʂ		ʃ		j		ɣ	h	
Afrikatuak							tʂ	tʂ̥		tʃ						
Sudurkariak		m		ɱ				n			ɲ		ŋ			
Albokariak								l			ʎ					
Darkarkariak								r								
Ttak-a								r								
Irristariak											j		w			
Herskari hasperendunak	p ^h				t ^h								k ^h			

3. taula: corpusaren egileen kontsonanteen hipotesia

Bokalak	Aitzineko	Erdiko	Atzeko
Goiko	i		u
Arteko	e		o
Beheko		a	

4. taula: corpusaren egileen bokalen hipotesia

3. ONDORIOAK

Hainbat izan dira lanean aurrera joan ahala lortutako emaitzak. Grafiaren azterketari dagokionez, agerikoa da autoreen grafia sistemen arteko aldea. Aztertutako egile guztiek ortografia sistema bera oinarri izanda ere, grafema batzuen hainbat erabilera erakusten dizkigute. Honetaz gain, badira grafema batzuk ezohikotzat har daitezkeenak aztertutako *corpus*aren barruan, egile erlatiboki gutxik erabilitakoak, <ñ> eta <ng> esaterako, grafema bakoitza gutun bakarrean agertzen baita. Euskararen egungo grafia sistemarekin konparatuz ere, aldea antzeman daiteke. Horren adibide da gaurko <z> eta <tz> grafemen erabilera sistematikoarekin alderatuz, erabilera oso mugatua daukatela aztertutako laginean.

Palatalizazioaren eta hasperenaren kasuan zalantza sor dakiguke aztertutako egile guztiek gauzatzen ote zuten, zenbaitzuek adierazi zuten bitartean besteek ez zutelako grafikoki inola ere islatu. Ezin da zehaztu idazkeran islatu ez zutenek egiten zuten ala ez. Horretaz gain, kontuan hartu beharra dago lanean aztertutako hamar gutunetatik bi, 2 eta 6, igorlea ez den beste pertsona batek idatziak direla, eta beraz, ez dakigula zeinen zehar islatu duen igorleak diktatutakoa edo idazlearen beraren hizkeraz zein aztarna utzi duen. Horrelako kasuetan ikus daiteke idazkeraren eta ahoskeraren arteko tartea asko mugatzen duela lehenengoak bigarrenetik zenbat erakutsi dezakeen. Alde batetik, idazkerak ahozkoaren ezaugarriak zeintzuk ziren ezagutzen lagun diezaguke testuaren egileak hartutako erabakien arabera, baina muga handiak daude ahozko ekoizpena nolakoa zen zehazterakoan. Velosok (2019) bere lanean defendatzen duenez, idatziak ahozkoaren zantzuak gorde ditzake, haren ezagutzarako lagungarri izanik, nahiz eta ahozkoaren isla zehatz eta fidela eskaini ez.

Euskararentzako idazkera orokortu baten faltak eragindako ezegonkortasuna nabari da testuetan, bai egileen artean, baita egile beraren idatzien barruan ere. Honen erakusgarri da esaterako, txistukarien saileko hotsak ordezkatzeko baliatutako grafema ugariak, baita gorago aipatutako apikari/lepokari bereizketaren kontua. Agerian dira idazle bakoitzak hartutako erabakiak beste hizkuntza baten sistema egokitu nahian. Guztiz eraldatu da euskaraz idazteko grafia sistema inguruko erdaren sistemak oinarri izatetik idazkera modernoa sortu zenera, idazkera fonologikotik askoz hurbilago dagoen gaurko sistema garatzean, Urgellek (1987) “finkatzea” deritzon garaira heltzean.

Lanean aurrera eginez eta bilakabideen atalean, grafiaren azterketan izandako zalantzen parekoak aurki daitezke. Baliteke egileen ahozkoan gauzatzen zen alofonoren bat azaleratu ez izana. Hala ere, gorago aipatu bezala, lan honetan egileen ahozko ekoizpenaren parte zirela segurtasun neurri handi batez ziurtatu ahal izandako alofonoak baino ez dira aipatu, fonemekin egin bezala.

Testuen analisiaren bidez lortutako informazio fonologikoari dagokionez, lanaren hasieran planteatutako hipotesiak berretsi dira. Gainera, ezin izan da ziurtatu autoreen fonema inbentario osoa azaleratu denik, ahozkoa idatzia abiapuntu izanda aztertzeak eta *corpus* mugatua lantzeak ezarritako mugen eraginez. Lanaren hasieran aurkeztutako gaur egungo fonema inbentarioarekin konparatuz aurki daitekeen hutsune esanguratsuen txistukari ahostunena litzateke, baina lanean esan bezala, hauen agerpen eremutik kanpo leudeke aztertutako testuen idazleak, beraz, ez dira lan honetan kontuan izan.

Beti ere, hasierako laburpenean esan bezala, azterbide baten proposamena litzateke lan hau, lanaren dimentsioak kontuan hartuta, ezin izan delako azterketa sakonagorik egin, ez eta lagin zabalagorik aztertu. Beraz, gerora egin beharreko analisi sakon eta zabalago baten hasikinak baino ez lirateke orain arte aurkeztutako orri hauek.

BIBLIOGRAFIA

- Edwards, Mary Louise eta Shriberg, Lawrence. (1983). “Forerunners Through the Structuralists” In *Phonology. Applications in Communicative Disorders*. San Diego: College-Hill Press, 43-67.
- Epelde, Irantzu eta Jauregi, Oroitz. (2011). “Bokal sudurkariak gaurko lapurteran”, *Lapurdum* 25, 29-42. URLa: <http://journals.openedition.org/lapurdum/2316>
- Lakarra, Joseba Andoni. (2011). “Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio”, *Fontes* 113, 4-114.
- Lamikiz, Xabier. (2015). “Le Dauphin itsasontziaren testuinguru historikoa: Louisbourgeko euskaldunak, ekonomia atlantiarra eta gerra (1713–1758)”. *Othoi çato etchera: Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757)*. *Lapurdum, ale berezia* 2, 17-43. URLa: : <http://lapurdum.revues.org/2546>
- Larramendi, Manuel. (1853). *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Donostia: Establecimiento tipográfico-literario de D. Pio Zuazua.
- Mitxelena, Koldo. [1961] [1977] (1990). *Fonética histórica vasca. Anejos del Anuario Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, 4, Serie “Obras completas de Luis Michelena” I*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mujika, Jose Antonio. (1997). *Euskal ortografiaren hastapenak Iparraldeko literaturan*. Bilbo: UPV/EHU.
- Oñederra, Lourdes. (1987). *Palatalizazioa euskaraz*. Bilbo: UPV/EHU.
- Oñederra, Lourdes. (1992). “Euskal fonologiazko berriak 1900 arte”. *ASJU* 15. 49-66.
- Padilla-Moyano, Manuel. (2019). “Txistukari ahostunak Zuberoako testuen argitara”. In Epelde, Irantzu eta Jauregi, Oroitz (arg.). *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*. Bilbo: UPV/EHU, 457-480.
- Padilla-Moyano, Manuel eta Videgain, Charles. (2015). “Edizioaren aurkezpena”. *Othoi çato etchera: Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757)*. *Lapurdum, ale berezia* 2, 87-92. URLa: <http://lapurdum.revues.org/2559>
- Padilla-Moyano, Manuel eta Videgain, Charles. (2015). “Le Dauphin: euskarazko gutunak (1757)”. *Othoi çato etchera: Le Dauphin itsasontziko euskarazko*

gutunak (1757). *Lapurdum, ale berezia* 2, 95-160. URLa:
<http://lapurdum.revues.org/2561>

Ponce de Leon, Rogelio. (2009). “João de Morais Madureira FEIJÓ. Ortografia, ou Arte de escrever e pronunciar com acerto a Língua Portuguesa – 1734 –. Edição semidiplomática com índice de todas as formas [Telmo Verdelho, João Paulo Silvestre e Isabel Prates, eds.]. *Linguística 4-1*, 169-173.

Salaberri, Patxi. (2009). “Izen ttipiak euskaraz”. *Onomasticon vasconiae* 26. URLa:
https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/72670.pdf

Urgell, Blanca. (1987). “Esku-liburuaren grafi aldaketak (1802-1821)”. *ASJU*, 21-2, 357-387.

Veloso, João. (2019). “Phonology and Writing: Can we look at written productions to “see the unseeable” in phonology?”. *Loquens*. 6-1. URL:
<https://doi.org/10.3989/loquens.2019.059>

1. eranskina: *corpusaren* transkripzioa

A bertsioa	B bertsioa	Transkripzioa
<p>1</p> <p>Data: 1757/2/2 Non idatzia: Urruña Igorlea: Martin de Arrunde Hartzailea: Martin de Arrunde Lotura: aita- semeak Helmuga: Louisbourg</p>		
<p>Lapresente letre / rendu martin / arrunde aLouisbourge / ALouis Bourge Urrugne le 2 fevrier 1756 /</p>	<p>La presente letre rendu Martin Arrunde a Louisbourge. A Louisbourge. Urrugne, le 2 fevrier 1757.</p>	
<p>Martin [de] arrunde escribacen darosquicut / Bileru ossasuna dugu jeancoari Esquer / Eta dessiracen ginduce Curia hala balix / Eta Cerbeit egin duculaaditudugu Eta / unqigobernacaite Eta ercebitunuben / Caspi libera martinen ganic deussic ecin / jrrisca desaqueguque unciguciiacarcen tuste Eregeren cerbicutic Ethorinincen / Eta Corsurat noa hogoieta sei pecetaquo / fragata Berribatian Eta helduden / urtian Cato Echerat eta Cerequin Ecdiru / Guciiac jrisca Eta halic obeciiena Eginen / Ducu eta Cerbicarry martin de arrunde</p>	<p>Martin de Arrunde, eskribatzen darozkitzut bi lerro. Osasuna dugu Jenkoari esker, eta desirutzen ginduce zuria hala balitz. Eta zerbeit egin duzula aditu dugu, eta unki governa zaite; eta errezibitu nuben zazpi libera Martinenganik. Deusik ezin irriska dezakeguke: unzi guzijak artzen tuzte. Erregeren zerbitzutik ethorri nintzen eta korsurat noa hogoi eta sei pezetako fragata berri batian eta heldu den urtian zato etxerat eta zerekin; ez diru guzijak irriska, eta halik obekijena eginen duzu. Eta zerbitzari Martin de Arrunde.</p>	<p>martin [de] arunde eskribatzen darozkitzut / bilero ossasuna dugu jeancoari esker / eta desiratsen ginduce zuria hala balitz / eta serbeit eyin duculaadituduyu eta / unkiyobernacsajte eta ercebitunuBen / csapi libera martinen ganik dewsik esin / iriska desakeyuke unsiyusijakartsen / tuste ereyeren serbitsutik ethorinintsen / eta korsurat noa hoyojeta sej pezetako / frayata beri batian eta helduden / urtian sato etferat eta serekin esdiru yusijak iriska eta halik obekijena eyinen / duyu eta serbitsari martin de arunde</p>

2

Data: 1757/2/4

Non idatzia: Hendaia

Igorlea: Marie d'Etcheverry [Don Qoche idazlariak egina]

Hartzailea: Pierre Daguerre

Lotura: ama-semeak

Helmuga: Louisbourg

A Monsieur / Monsieur Pierre Daguerre / A
Louisburque.

Ahenday 4e de fevrier 1757

/ Ene seme maitija

/ Escrivacendisut Bilerro hauq surymarquaceratemateco /
Estatu miserable Baitan

qaucicenais Erresivitudut sure / Lettra Ere han

iqussydut sure Berrijaq Baignan / Esnaibessala
martineq eta huncija galdudute Berris Ere / horraçu

Desiradu arrequinservait icendus mariqatania /

assareda sure contra Estyossula Lettrabat Eguinlau

/ hurtehuntan alababat badusu iduridubena

perfeq / Etorryqoda horat Baquija Eguitendenian

Jduriquicen / Du Emendiq harat orroitu saren

Baigno obequy / orroituçu sarella guissona hor laster

aberestennomendira / Suceresa?adusugaihona (†)

horsure Lettra Ematen / Dossuna arren conseluvaq

hunguy artasu sure annaya / Bessela Esagusasu

deusit Egorceco dusunian horren / ganat adresasu

adisquide handibatdugu Etacontu / horre hunguy

A Monsieur Monsieur Pierre Daguerre. A
Louisburque.
A Henday, 4e de fevrier, 1757.

Ene seme maitija,

Eskribatzen dizut bi lerro hauk

zuri markatzerat emateko estatu miserable batian
kausitzen naiz. Errezibitu dut zure letra ere; han
ikusi dut zure berriak, baiñan ez nai bezala.

Martinek eta hunzija galdu dute berriz ere, horra zu,

Desira du arekin zerbait izanen duzu. Marikatania

asarre da zure kontra, eztiozula letra bat egin lau

hurte huntan. Alaba bat baduzu iduri dubena

perfek; etorriko da horrat bakija egiten denian,

idurikitzen du. Emendik harat oroitu zaren

baño obeki oroitu zu zarela gizona. Hor laster

aberesten omen dira; zuk ere sa?a duzu gai hona

(†). Hor zure letra ematen dozunaren konselubak

hungi artzazu, zure anaia bezela ezaguzazu;

deusit egortzeko duzunian horrenganat adrezazu,

adiskide handi bat dugu eta kontu horre hungi

/ ene seme majtija

/ eskribatşen dişut bilero hawk

şurimarkatşeratemateko / eştatu mişeraþle þatian

kawşitşenajş ereşitşuduđut şure / letra ere han

ikuşitşut şure þerijak ba(j)nan / eşnajþeşala

martinek eta hunşija ¼alđuduđe þeriş ere / horaşu

đeşirađu arekinşerbajit işeñduşu marikatania /

aşaređa şure koñtra eştioşula letra þat eyinlaw

/ hurtehuntan alaþaþat bađuşu iduriđuþena

perfek / etorikođa horat bakija eyiteñdenian

Iđurikitşen / du emeñdik harat oroitu şaren

ba(j)no obeki / oroituşu şarela ¼işona hor laşter

aþereştenomeñdira / şukereşa?aduşu¼ajhona (†)

horşure letra ematen / doşuna aren koñşeluþak

hungi art[ş]aşu şure anaja / þeşela eşa¼uşuşu

deuşit eyortşeko đuşunian horenganat / adreşuşu adişkiđe

hañdiþatduyu etakoñtu / hore hungi

<p>Eguignedu ganes pellobaitaco ganda / Corsurat sure gorranciajq Emandijosagu banuque / sury servait gastijaceco icenda Berceoquasionebat / ganesen Berririq Estugu deusit jaquiten Badusu / gastijasasu apachappanaq gorrancy harengalsardy / gorrijaq nontusu ganachume assareda surecontra / Merrisidu sureganiq gusama Ere Bai / Marie d Eceverry [marjinean idatzia] / haucuquouaq gorrancy Donqocheq Eguigndu Lettrahau</p>	<p>eguiñe du. Ganes Pellobaitako gan da korsurat; zure gorantzijak eman dihotzagu. Banuke zuri zerbait gatzijatzeke; izanen da bertze okasione bat. Ganesen berririk eztugu, deusit jakiten baduzu gatzijazazu. Apa Xapanak goranzi, haren galzardi gorrijak non tuzu? Gana Xume asarre da zure kontra, merisi du zureganik; gusama ere bai. Marie d'Etcheverry. Hauzukuak gorantzi. Don Qocheq egiñ du letra hau</p>	<p>egijneðu yaneş pełobaitako yañda / korşurat şure yorantşijak emañdijotşayu banuke / şuri şerbajt gaştijatşeko işenda bertşeookaşjonebat / ganeşen beririk eştuyu / ðewşit jakiten baðuşu / yaştijaşuşu apaşapanak gorantşu harengalşardi / yorijak non tuşu yanafume aşareða şurekontra / merişiðu şureyanik yuşama ere baj / mari ð etfeberi / hawşukuak gorantşu ðonkofek eyjñdu letrahaw</p>
<p>3</p> <p>Le Dauphin: euskarazko gutunak (1757) Data: 1757/2/12 Non idatzia: Hendaia Igorlea: Gacina de Biscarrondo Hartzailea: Patchiqu de Biscarrondo Lotura: anai-arrebak Helmuga: Louisbourg</p>		
<p>A Monsieure / Monsieure / patchiqu de bis- / carondo / A Lisbourc</p>	<p>A Monsieure Monsieure Patchiqu de Biscarrondo. A Lisbourc.</p>	
